

## EUSKOTRENEK IGANDEAN TREN ZERBITZUA INDARTUKO DU INAUTERIAK ETA REAL SOCIEDAD – ATLÉTICO DE MADRID PARTIDUA DIRELA ETA

Igande arratsaldean (martxoak 3), Euskotrenek Irun eta Amara artean 15 minutuz behin zerbitzua eskainiko du Donostiako inauteriak eta Anoetan 18:30ean jokatu den Real Sociedad – Atlético de Madrid partidua direla eta.

Igande arratsaldean zehar (15:00etatik aurrera gutxi gorabehera) 15 minutuz behin Irun eta Amara artean trenak egongo dira (noranzko bietan). Tarte honetan larunbatetako ohiko ordutegian zirkulatuko da. Horrela, Donostiako Inauteriak zein Anoetan Real Sociedad taldearen partidua sortuko dituzten joan-etorrien beharrianak beteko dira. Halere, partidu hau bukatu ondoren zerbitu hauekin era indartuko da: Lasartera (20:40, 21:07), Zumaiara (20:45, Amaran tren aldaketa egin gabe), Altzara (20:25, 20:40, 20:55) eta Hendaia (20:18, 20:33, 20:37, 20:48).

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete Euskotrenen langileekin zerbitzatutako geltokietan eta geralekuetan, Euskotrenen APP ofizialean, konpainiaren [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) web gunean eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

Igorpen data: ostirala, 2019ko martxoaren 1ean

